



Hirietako Egun Berdeak 2005 (Urban Green Days 2005) *Ingurumen-aurrerapausoak partekatuz*

Zer da? Europako herri eta hiri guztiak daude gonbidatuta Europako Batasunaren Hirietako Egun Berdeak –*Urban Green Days*– ekimenera: batera ospatuko dira Bruselako Europako Aste Berdea – maiatzaren 31tik ekainaren 3ra– eta Ingurumenaren Nazioarteko Eguna –ekainaren 5a–, eta horien inguruko jarduera eta ekitaldiak egingo dira.

Iaz, 2004an, Europako hirietan 250 ekitaldi baino gehiago egin ziren Hirietako Egun Berdeetan: Ingurumenaren Nazioarteko Eguneko ohiko ekitaldi eta jarduerak ez ezik, ekimen berriarekin hasitako jarduerak ere egin ziren.

Zergatik parte hartu? Ekimenaren helburua da Europako Aste Berdea eta Ingurumenaren Eguna ospatzeko tokiko jarduera guztiak biltzea, eta hiriko ingurumenaren kalitatearen eta babesaren inguruan kontzientziatzeko egingo dira.

Hirietako Egun Berdeetako ekitaldiek inguruneke ingurumen-kalitatea hobetzera bultzatzen dituzte herritarrak, enpresaburuak, tokiko agintariak eta hiriko beste eragile batzuk, eta informazioa helaraztera beren tokiko gobernuei, norberaren herrian ingurumena hobetzeko egin daitezkeen lanen (egungoak eta etorkizunekoak) inguruan.

2005eko Hirietako Egun Berdeek klima-aldaketa nabarmenduko dute, eta, besteak beste, garraio iraunkorra, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak gaiak landuko dira; hala ere, beste ingurumen-gai batzuetan oinarritutako jarduerak ere egingo dira.

Parte hartzen duten tokiko gobernuek onurak izango dituzte, bai herri mailan, bai Europa mailan. Hirietako Egun Berdeek, Europako Batzordearen urteroko ekimena direnez, ekitaldi edo jarduera independenteek baino eragin handiagoa izango dute gobernu nazionaletan eta Europakoetan, eta jendearen eta hedabideen arreta errazago erakarriko dute.

Hirietako Egun Berdeen baitan egingo diren jarduera guztiak www.urbangreendays.org gunean azalduko dira; horretarako, formulario bat bete beharko da jardueren datu-basean, gunean bertan. Tokiko gobernuek beren udalerrietan egindako jarduerak nabarmentzeko aukera izango dute, jardunaldien bideoak, argazkiak eta bestelako materialak bidalita. Gainera, Hirietako Egun Berdeetan egindako jarduerak Bruselako Aste Berdean ere erakutsiko dira, eta parte hartzen duten tokiko gobernu guztiek beren esperientziak eta sentsibilizatzeko eta komunikatzeko erabilitako bideak bidaltzeko aukera izango dute. Gero, jardunbide egokien ikerketa batean argitaratuko dira, eta nazioartean banatuko dira.

Nola funtzionatzen du? Jardunaldien antolatzaileek herritarren parte-hartzea bultzatu dezakete, ingurumena eta tokiko biztanleen ekonomia, bizi-kalitatea eta osasuna babesten dituzten jardueren bidez. Kasurako, energia berriztagarrien estazioak, ekipo elektriko ekoeraginkorren erakustaldiak, garraio publikoari buruzko jardunaldi irekiak edo bizikleta-lasterketak egin daitezke. Ekitaldiak ezberdinak izango dira hiri batetik bestera, komunitate bakoitzaren beharrak, baliabideak eta helburuak aintzat hartuta. Hala, jardunaldi irekiak, erakustaldiak eta lehiaketak egin ahalko dira, baita jarduera artistikoak, mendi-ibilaldiak, ekitaldi publikoak ikastetxe edo merkatuetan edota hitzaldiak eta mintegiak ere. Jarduerei buruzko ideiak hartu nahi izanez gero, 2004ko ekitaldi guztiak www.urbangreendays.org gunean erregistratuta daude.

Hirietako Egun Berdeak (*Urban Green Days*) Europako Batasuneko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren ekimena da. ICLEI (*Local Governments for Sustainability*) ekimena koordinatzen du, EBko 25 herrialdeetako kolaboratzaileekin batera, eta interesa duten tokiko gobernu guztiek laguntzen die zerbitzu ugariaren bidez. Argibide gehiago nahi izanez gero:

ICLEI – Local Governments for Sustainability
European Secretariat
Leopoldring 3
79098 Freiburg / Alemania
Telefona: +49-761 / 36892 -63 edo -0, Faxe: +49-761 / 36 89 2-29
h.el.: urbangreendays@iclei-europe.org